

IRUNGO PINUDI PARKEKO LURPEKO APARKALEKUAREN ERABILTZAILIEN KOMUNITATEAREN ESTATUTUAK.

LEHENENGO KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRA: Estatutu hauek Irungo Pinudi Parkean lurpean dagoen aparkalekuaren Erabiltzaileen Komunitatea arautzea dute xede.

BIGARREN KAPITULUA.- IRUNGO ETXEBIZITZARAKO ELKARTE PUBLIKOA / SOCIEDAD PUBLICA DE LA VIVIENDA DE IRUN SAUREN (IRUNVI) AHALMENAK HIGIEZINARI ETA HAREN ERABILERA ETA MANTENUARI DAOKIENEAN: soilik IRUNVIri dagokio, Pinudi Parkea esparruaren Barne Erreformarako Plan Bereziaren arabera L.K., lursailaren zorupearen gaineko kontzesio administratiboaren esleipenduna den aldetik Irungo Pinudi Parkean Lurpeko Aparkalekuaren Ekipamendua eraiki eta ustiatzeko, Irungo Udalbatza Txit Gorenak 2006ko uztailaren 26ko Osoko Bilkuran esleitua, aparkaleku horren erabilera eta mantenuaren, eta bereziki, haren elementu, ondasun eta zerbitzu komunak inguruko baldintzak zehaztea.

Soilik IRUNVIk ahal izango du:

- a) Eraikinaren eta jabetza horizontalaren eratze titulua eta parte hartze kuotak aldatu.
- b) Erabiltzaileen Komunitatearen Estatutu hauek aldatu.
- c) Elementu komunak eta eraikinaren egitura, estankotasun, bizigarritasun eta segurtasunarekin loturikoak aldatu.
- d) Higiezinaren, eta bertako instalazio eta zerbitzuetan era guztietako obrak baimendu.

III. KAPITULUA.- ERABILTZAILIEN ESKUBIDEAREN ERREGIMENA ETA IRISMENA: Aparkaleku plazen erabilera eskubidearen titularrei dagozkien eskubideak IRUNVIk araudiaren arabera zehazten dituenak izango dira, esleituriko plazaren gaineko erabilera eskubide berezi eta esklusiboaz gainera.

IV. KAPITULUA.- ERABILTZAILIEN BETEBEHARRAK: IRUNVIk araudiaren arabera zehazten dituenak izango dira aparkaleku plazen erabilera eskubidearen titularrei dagozkien betebeharrak.

V. KAPITULUA.- HIGIEZINAREN KONTSERBAZIOA: erabiltzaileen kontu eta arriskura izango dira kontzesioak irauten duen bitartean aparkaleku plazak izan ditzakeen hondamenak.

Erabiltzaileen Komunitatearen betebeharra izango da higiezina eta haren zerbitzuak behar bezala zaindu eta kontserbatzea, egitura, estankotasun, bizigarritasun eta segurtasun baldintzak behar bezala mantentzeari loturikoan izan ezik.

IRUNVIk higiezina zaindu eta kontserbatzeko egokitzat hartzen dituen eta erabiltzailearen edo Erabiltzaileen Komunitatearen ardurapekoak diren obrak egiteko agindu ahal izango die erabiltzaileei. Erabiltzaileek ez badituzte obra horiek egiten, IRUNVIk egin ahal izango ditu haien kontura.

VI. KAPITULUA.- KOMUNITATEAREN GOBERNU ORGANOA: IRUNVIk araudiaren arabera zehaztuko ditu Pinudiko Lurpeko aparkalekuaren Erabiltzaileen Komunitatearen Gobernu organoen osaera eta erregulazioa.